



Kanistebarak 2022

OIARTZUN

abuztuaren 2tik 6ra

Xanisteban



Jexux Leonet Elizegi
Oiartzungo alkatea



Xanistebanak inguratzen ari zaizkigu, eta horrekin batera, *Oiartzun* urtekariaren bidez oiartzuarrak agurtzeko aukera eskaini dit Urtekari Batzordeak.

Xanistebanik gabeko bi urteren ondoren, aurten berriz herriko festak ospatuko ditugu. COVID19ak eragindako albo-kalteetako bat izan zen herriko eta auzoetako festak ezin ospatzea. Guztiontzat gogorak izan dira azken bi urteak. Imajinatu ere ez genuen egingo bizitzea tokatu zaiguna, baina gauza negatibo guztiekin ere ikasten da, eta COVID19ak eragin duen larrialdi egoerak ere ekarri du ezer positiborik: zaintza-lanen garrantzia azaleratzeko eta aitortzeko aukera eman digu.

Hori dela eta, zaintzan jarduten edo lan egiten duten pertsona eta profesionaleri nire aitortza zintzoa azaldu nahi diet, egiten duten lana ezinbestekoa eta oinarri-oinarritzkoa baita. Ez da kasualitatea oraindik zaintza-lanetan batez ere emakumeak aritzea. Errespetua eta aitortza zor diegu gizarte gisa.

Bestetik, aurten kulturaren eta kirolean gailendu diren oiartzuarrak ere zoriondu nahi nituzke: Katerin Artola dantzaria, Olatz Mitxelena idazlea, Juan Mari Beltran musikaria, Ander Imaz pilotaria, Ainhoa Etxeberria eskubaloi-jokalaria... Koldo Fernandez ere aipatu nahi nuke: urteetan OKE-ren bidez Oiartzungo herriari egin dion ekarpena ez dugu ahaztuko.

Dagoeneko Xanistebanei begira gaude guztiok. Oiartzuarrak pozik eta ilusioz beteta gaude herriko festak ospatzeko aukera izango dugulako. Jai Batzordeari eskerrak eman nahi dizkiot, gogotsu hartu dutelako erronka espero eta nahi gabeko bi urteko geldialdiaren ondoren. Herriar guztiontzako moduko festak izango baditugu, eurei esker izango da. Mila esker!

Garai konplexuak dira oraindik, baina festak beti izaten dira harremanak sortzeko eta sendotzeko aukera aproposa, komunitatea egitekoa. Aurtengoak ere hala izan bitez eta ospa ditzagun Xanistebanak familiakoekin, lagunekin eta bizilagunekin.

Bukatzeko, Xanistebanetan egoteko aukerarik izango ez duten guztiei besarkada handi bana bidali nahi nieke Oiartzungo herriaren izenean. Gaixo daudelako Xanistebanetan gurekin egongo ez direnei indarra bidali nahi diet ahalik eta azkarrena osatzeko. Eta bestetik, presoak eta haien senideak ditut gogoan, egun berezi hauetan elkarrekin festak ezin izango dituztelako ospatu. Animoak eta besarkada estu bat bidali nahi diet denei.

Besterik gabe: ongi pasa Xanistebanak errespetuan, pasatu gabe eta...

GORA OIARTZUN!

2022

ebanmak

Oiartzungo Udalak, herriko elkarten laguntzaz eta herritar guztien gozamenerako, abuztuaren 2, 3, 4, 5 eta 6rako eratu duen
JAI ETA KULTUR EKINTZEN EGITARAUA

ABUZTUAK 2 asteartea

- Egunean zehar** Auzoz auzoko 41. ibilaldia: OIARTZUNGO MUSIKARIZ osatutako taldea ibiliko da auzoz auzo, Xanistebanak hastera doazela iragarritz.
Antolatzaileak: Oidultz, Soinuenea, Ibagain Musika Eskola
- 18:30** AGERRALDI FEMINISTA, herriko plazan.
Antolatzailea: Oiartzungo Asanblada Feminista
- 19:30** Udalbatzako kideek SOKADANTZA dantzatuko dute, Herriko Plazan, Haurtzaro Dantza Taldearen eta Lartaun Txistulari Taldearen laguntzaz.
- Ondoren** Jai Batzordeak proposatuta, **GARMENDIA OKINDEGIKO OKINEK**, herriko alkateak eta udalbatzako kideek SUZIRIA botako dute.

Kanpai-soinu alaitsuekin batera, jaiak hasiko dira.
- Jarraian** OIARTZUNGO ERRALDOIEN ETA BURUHANDIEN kalejira, herrian zehar, dultzaineroen eta Lartaun Txistulari Taldearen laguntzaz.
- 23:30** Musika Jaialdia, Done Eztebe plazan
IRATZAR
- 23:30** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
TRIBADE
TXILTXOKO
BENGO
ZIZTADA
Antolatzaileak: Gauetako Batzordea

ABUZTUAK 3 asteazkena

XANISTEBAN EGUNA

- 07:00** SOKAMUTURRA, Beheko Plazan.
Antolatzailea: Auzokalte Elkartea
- 07:00** GOSARI TXOW, Done Eztebe plazan.
Antolatzailea: AIA
- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea.
- 10:30** Festetako EZKILA JOALDIAK.
Antolatzailea: Oiartzungo ezkila jotzaile taldea
- 11:00** HERRI MEZA NAGUSIA, Done Eztebe Parrokian.
Lartaun Abesbatza kantuan, Begoña Bergaretxe organoan.
- Ondoren** 45. KONTZERTU HERRIKOIA, Kontzejupean, Euskal doinu, kanta eta dantzetan oinarritutako emanaldia.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 11:30** POTTOKAK ETA ZEZEN TTIKIAK, Beheko Plazan.
Antolatzailea: Auzokalte Elkartea.
- 11:30** UR PUZGARRIAK, Haurtzaro Ikastolan.
Antolatzailea: AIA
- 13:00** PASAKA eskuz. Gipuzkoako Txapelketaren finalak, Kontzejupean.
Antolatzailea: Txost pilota elkartea
- 16:00** Madalensoro pilotalekuan, Oiartzungo Auzoen Arteko 34. SOKATIRA TXAPELKETA.
Antolatzailea: Artaso Elkartea
- 19:30** DANTZA BILERA txistulariekin, Kastroko iturrian.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 23:00** Dantzaldia BIDE BATEZ taldearekin, Done Eztebe plazan.
- 23:00** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
KALEKO URDANGAK
IHESKIDE
YAKOLEV 42
Antolatzaileak: Gauetako Batzordea

ABUZTUAK 4 osteguna

BASERRITAR EGUNA

- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 10:00** Oiartzungo PRODUKTU EKOLOGIKOEN AZOKA, Done Eztebe Plazan.
Arraztalo Elkartearen produktu ekologikoak eta HemenGuk herriko ekoizleenak.
Antolatzailea: Arraztalo Elkartea
- 10:30** IDI DEMAren lehenengo txanda, hilerriaren goiko aldeko plazan. Oiartzungo harria erabiliko da (1.800 kg-koa). 1.100 kg-tik gorako pisua duen idi pare bakoitzak 1,5 kg-ko gain-zama hartu beharko du gainditzen duen kilo bakoitzeko. Federatuak izango dira.
Antolatzailea: Esku Garbiak Elkartea
- 11:00** ZAHARREN EGOITZARAKO BISITALDIA, Haurtzaro Ikastolako Dantza Taldearekin, Lartaun Txistulari Taldearekin eta trikitilariekin.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 11:50** Inaxio Uharte 21. SAGARDO LEHIAKETAren hasiera, Done Eztebe plazan. Herriko sagardoa dasta eta balora ezazu edalontzia erosiz!
Antolatzailea: Ibargain Elkartea
- 12:00** Oiartzungo PINTXO-LEHIAKETA, Done Eztebe plazan. Herriko elkarte eta tabernek egindakoen artean, pintxo onena nork egin duen jakingo dugu.
Antolatzailea: Ibargain Elkartea
- 12:00** Oiartzungo Herri Musika Eskolaren kale-bueltak. Emanaldia Done Eztebe plazan.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 13:15** Oiartzungo PINTXO LEHIAKETA; sarien banaketa, Done Eztebe plazan.
- 13:30** Inaxio Uharte 21. SAGARDO LEHIAKETAren sari banaketa, Done Eztebe plazan.
- 14:00** Oiartzungo Udalak BAZKARI GOXO BAT ESKAINIKO DIE HERRIKO ERRETIRATUEI, Gazte Izanak elkartearen laguntzarekin. Ondoren, musika izango da, nahi duenak dantza egin dezan.



- 14:30** BAZKARI FEMINISTA, Eliza ondoan.
Antolatzailea: Oiartzungo Asanblada Feminista
- 17:00** BERTSO SAIO FEMINISTA Eliza ondoan.
Alaia Martin, Maialen Lujanbio eta Oihana Iguaran.
Antolatzailea: Oiartzungo Asanblada Feminista
- 17:00** HELDUEN TAILERREN 23. ERAKUSKETA (margoak, bolilloak, eskulanak, taila, joste-lanak, pachwork, altzari-berritzea, eta abar), Kilirikupean.
Antolatzailea: HELTA Helduen Tailerrak
- 17:00** IDI DEMAren bigarren txanda, hilerriaren goiko aldeko plazan.
- 17:00** Herriko ERRALDOIEN eta BURUHANDIEN kale-buelta, Beheko Plazan barrena, Tolarietan hasita.
Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa
- 17:00** Oiartzungo HAURREN JOKO GARBI eta PALA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiartzungo Eskola Kirola
- Ondoren** Binakako PALA TXAPELKETAren finalak, Kontzejupean.
18:00etan mutilak; 18:45ean neskek.
Antolatzailea: Girizia Pilota Saila
- 18:30** AMARRU magia ikuskizuna familientzat TOR magoarekin, Elizalde Eskolako frontoian.
Antolatzailea: Elizaldeko Guraso Elkarte
- 18:30** DULTZAINEROEN TOPAKETA, herrian zehar.
Antolatzailea: Soinuenea eta Oidultz
- 18:45** OLARRI Oiartzungo Dantza Taldearen saiotxoa, Kastro iturri ondoan.
Antolatzailea: Olarri Dantza Taldea
- 19:00** HERRI KIROLLEN JAIALDIA, Haurtzaro Ikastolako plazan.
Aizkolariak: emakumezkoak eta gizonezkoak
Harri-Jasotzaileak.
Antolatzailea: Iturri-Berri Elkarte
- 19:30** DANTZA-BILERA familian, Kastroko iturri inguruan:
Kixkil Erromeri Taldea.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 21:00** Musika Jaialdia, Done Eztebe Plazan.
AMEBA
ASTELEHEN GOIZAK
APALATXE
Antolatzaileak: Gauetako Batzordea

- 22:00** HAATIK DANTZA TALDEAren *ERRIMAK BI OINETAN* emanaldia, Elorsoro kiroldegian.
Antolatzailea: Haurtzaro Dantza Taldea
- 23:00** DJ BULL, eliz gaineko txosnan euskal musikaz girotua.
- 23:30** HELDUEN DANBORRADA, Oiartzungo kaleetan zehar.
Antolatzaileak: Auzokalte Elkartea eta Haurtzaro Ikastola

ABUZTUAK 5 ostirala

GAZTEEN EGUNA

- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea.
- 12:00** BERTSO JAIALDIA txosnagunean.
Ametz Arzallus, Nerea Ibarzabal, Josu Ibarguren eta Miren Amuriza.
Gai-jartzaile: Ander Lizarralde.
Antolatzailea: Martzelina Bertsozale Elkartea
- 12:00** Oiartzungo Herri Musika Eskolaren kale-bueltak.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 12:30** KANTU KANTARI. Kantuzale den orok herri-kantuen sorta ederra abesteko aukera izango du herriko kaleetan barrena.
Denak gonbidatuta!
Antolatzailea: Lartaun Abesbatza, Lartaun Txistulari Taldearen laguntzaz
- 13:30** GAZTE TXUPINAZOA, plazan.
- 14:30** GAZTEEN BAZKARIA, Done Eztebe plazan.
Antolatzaileak: Biyurrienea
- 17:00** Kuadrillen arteko BINGOA eta JOLASAK, Done Eztebe plazan.
- 18:00** HARIAK, JOSTORRATZAK eta ZAURIAK ahozko NARRAZIO SAIOAK helduentzat zein haurrentzat, MIREIA DELGADOren eskutik, Arizmendienean.
Antolatzailea: Oiartzungo Asanblada Feminista
- 18:00** 30. ARIN-ARIN ETA FANDANGO TXAPELKETA, gaztetoentzat, Beheko Plazan. Gipuzkoa osoko dantzariak, 14 urtetik beherako neska-mutilak, Lartaun Txistulari Taldearen doinuekin dantzan.
Antolatzailea: Aldeguna Elkartea.



- 18:30** Txarangak gidatutako POTEOA.
Antolatzaileak: Biyurrienea
- 18:30** EUSKAL PILOTA EGOKITUko erakustaldia,
Madalensoro pilotalekuan.
Antolatzailea: Mindara Elkartea
- Ondoren** EMAKUMEZKOEN goi mailako PILOTA partidak,
Madalensoro pilotalekuan: Miren Larrarte-Leire Galdeano
Maddi Berrocal-Narora Agirre
Antolatzailea: Oiarpe K. E.
- 19:00** DISKOFESTA GASTRONOMIKOA Arizmendienean.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 19:30** DANTZA BILERA, Kastroko iturrian.
BITARTEAN taldea.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 21:00** KARAOKEA txosnagunean.
Antolatzaileak: Biyurrienea
- 23:00** Dantzaldia, Done Eztebe Plazan: PATXI PEREZ eta bere taldea.
Antolatzaileak: Gauetako Batzordea
- 23:30** Jone Uria eta Julene Otegi
DJ TXANKLETA Txosnagunean
Antolatzaileak: Gauetako Batzordea

ABUZTUAK 6 larunbata

HAURREN EGUNA

- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 10:30** Xanistebanetako HAURREN ESKU-PILOTA TXAPELKETA
HERRIKOIAren finalak, binaka, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiarpe KE
- 10:30** Gaztetxoan DANBORRADA.
Antolatzaileak: Ergoiengo Jai Batzordea eta Haurtzaro Ikastola
- 11:30** ERRALDOIEN KALE-BUELTA, Done Eztebe plazan hasita.
Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa

2022



- 12:00** Oiartzungo Herri Musika Eskolaren kale-bueltak.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 12:30** ARKUME ERRETZEA:
ARKUMEA BURDUNTZIAN, A ZE POZA TRIPAN SARTZIAN.
Done Eztebe plazan, herri-poteoaren hasiera.
- 14:30** ARKUME JATEA. Bazkalondoa, TXARANGAK alaituta.
Antolatzailea: Ardi Latxa elkarte
- 16:00-20:00** Haurtzaro Ikastolako jolastokian, HAUR ETA GAZTEENTZAKO PARKEA (quad pista, super jumping, sagardotegi mugikorra + artzain txakurra, basetxe- ludoteka, dantza-plaza). Den-dena doan, 3 urtetik 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 17:30** Haurrentzako TXOKOLATADA, Ikastolako jolastokian.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 18:00** *GU AGUSTINA* ikuskizuna Beheko Plazan.
Antolatzailea: Oiartzungo Asanblada Feminista
- 19:00** AITOR TXIKI XIII. ARETO FUTBOLEKO TXAPELKETAren finalak, Elorsoero kiroldegian.
- 19:30** MUSIKA JAIALDIA, HIRU BI BAND! taldearekin,
Done Eztebe plazan.
- 23:00** Dantzaldia, LAIOTZ taldearekin, Done Eztebe plazan.
- 23:00** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
MERINA GRIS
YOGURINHA
HAMABI
Antolatzaileak: Gauetako Batzordea
- 23:30** Elizaldeko kaleetan zehar, ZEZENSUZKOA ibiliko da,
Lartaun Txistulari Taldeak *Idiarena* doinuaz lagundurik.
- Ondoren** Dantzaldiaren jarraipena, LAIOTZ taldearekin,
Done Eztebe plazan.
Antolatzaileak: Gauetako Batzordea

BARRAKAK

Barraketan **prezio bereziak** izango dira Oiartzunen Xanistebanetan:

Bidaia bat: 1,80 euro · 5 bidaia: 6 euro



KIROL EKITALDIAK

UZTAILAK 31, IGANDEA

- 10:30** Xanistebanetako HAURREN ESKU-PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, banaka, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiarpe KE

ABUZTUAK 1, ASTELEHENA

- 19:00** AITOR TXIKI XIII. ARETO FUTBOLEKO TXAPELKETAren finalerdiak, Haurtzaro Ikastolan.
- 20:00** ESKUZKO PASAKA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, Kontzejupean.
Antolatzailea: Txost pilota elkarte

ABUZTUAK 7, IGANDEA

- 10:00** 74. XANISTEBAN TXIRRINDULARI SARIA, Euskal Federazioak 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindularientzat antolatzen duen Euskaldun Saria.
Antolatzailea: Lartaun Zikloturista T.K.E.

KULTUR EKITALDIAK

UZTAILAK 31, IGANDEA

- 19:30** OSKARBI TALDEAren eta LOINATZ ABESBATZAren musika jaialdia, Done Eztebe elizan, HIESaren aurkako Harri Beltza elkartearen eskutik.

OHARRAK

Oiartzungo Udalak ez ditu bere gain hartuko jai hauetan gerta daitezkeen zorigaitzak. Halaber, egitarau honetan adierazten diren festa edo ekintzetan iruditzen zaizkion aldaketak egiteko ahalmena du.

Xanisteban festetako aurrekontua ikusgai egongo da helbide honetan, oiartzun.eus/eu/Festak/Xanistebanak, **Xanistebanetako aurrekontua** estekan.

ebanak

ABUZTUAK 1, ASTELEHENA

- 18:00** Arizmendieneako lorategian (eguraldi txarraz Udal Areto Nagusian), Xanistebanetan ohitura den bezala, **Oiartzun 2022** urtekariaren aurkezpenari ekingo dio Udaleko Kultura Batzordeak.
- Jarraian** Xanistebanak 2022 kartel lehiaketako irabazleen sariak banatuko dira.
- Jarraian** Izaskun Madariaga Irigorrik Mugarri bildumarako idatzi duen liburua aurkeztuko da: **Iturburu: Udal haur Eskolako historia**.
- Bukatzeko** herrian nabarmendu direnei omenaldia egingo die Udalak.

ERAKUSKETAK

XANISTEBANEK IRAUTEN DUTEN BITARTEAN

MANUEL LEKUONA BIBLIOTEKAN

abuztuaren 1ean, 2an, 4ean eta 5ean,

Xanistebanak 2022 Kartel Lehiaketan parte hartu duten kartelen erakusketa

09:00 - 14:00



ERASO MATXISTEN KONTRAKO PROTOKOLOA

EMAKUME BAT ERASOTUA IZAN DENEAN
EDO
ARRISKUAN DAGOELA USTE DUZUNEAN
EGIN BEHARREKOA

Hemen





XANISTEBANAK JAI BATZORDEA



OIARTZUNGO
UDALA

Azala: Xanistebanak 2022 iragartzen dituen kartela. Egilea: Iraitz Arabolaza Etxenagusia